



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### ASTIGARRAGAKO UDALEKO UDALTZAINEN OFIZIALORDE PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUA

#### Merezimenduen balorazioaren eta oposizio-lehiaketaren BEHIN BETIKO EMAITZAK eta IZENDAPEN-PROPOSAMENA

Merezimenduen balorazioari eta oposizio-lehiaketaren behin-behineko emaitzei alegazioak aurkezteko epea amaitu denez, eta bakar bat aurkeztu ez denez, epaimahai kalifikatzaileak 2022ko otsailaren 21eko bileran, honako hau erabaki du:

Lehena.- Lehiaketa-fasearen eta oposizio-lehiaketaren behin-behineko emaitzak behin betikotzat hartzea.

Bigarrena.-Oposizio-lehiaketaren behin betiko emaitza hauek argitaratzea:

Hurrenkera	NAN	1. proba	2. proba	Euskara	4. proba	Merituak	GUZTIRA
1	**1589***	23,25	31,05	Egiaztatua	19,5	11	84,8
2	**5517***	16,95	27,89	Egiaztatua	15,75	19,05	79,64
3	**0883***	15,75	33,16	Egiaztatua	16,5	11,1	76,51

Hirugarrena.- Izendapen-proposamena egitea oposizio-lehiaketan 1. postuan gelditutako hautagaiaren alde, alegia, 44158917K NAN zenbakia duen hautagaiaren alde.

Laugarrena.- Proposatutako pertsonak izendapenari uko egiten badio, hautaketa-prozesuko deialdiaren hamaikagarren oinarrian eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada edo lanpostuaz jabetzen ez bada, hautaketa prozesuan puntuaziorik onena lortu duen hurrengo pertsonaren aldeko izendapena egitea; eta horrela hurrenez hurren, lanpostua bete arte edo prozedura hutsik geratu arte.

Bosgarrena.- Lan-poltsa bat eratzea hautaketa-prozesua gainditu duten gainerako hautagaiarekin, II. akordioan ezarritako hurrenkerarekin.

Astigarragan, 2022ko otsailaren 21ean.

Imanol San Sebastián Mateos  
Epaimahai kalifikatzailearen idazkaria.